



JUSTIZIA ETA HERRI
ADMINISTRATIO SAILA
Elkarteen Erregistroa

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA
Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA
Registro de Asociaciones

ELKARTEAREN ESTATUTUAK

1994ko azaroaren 4an eta Erregistro zenbakia AS/G/04937/1994 duen irabazteko asmorik gabeko "TTAN - TTAKUN" Aisialdi Elkartearen Estatutuak ekainaren 22ko 7/2007 Legea eta martxoaren 22ko 1/2002 lege Organikoan, Elkarteei buruzkoa, ezartzen duenaren arabera izan dira aldatuak eta gaurkotuak 2009ko ekainaren 19an egindako ez ohizko Batzar Orokorrean.

LEHENENGO ATALBURUA

IZENA

1. Atala

Elkartearen izena honoko hau da: "ANTXETA TTAN-TTAKUN" Aisialdi Elkartea.

Aipatutako elkarteak honoko araubide hau izango du: Elkartearen Legea eta une oro indarrean dagoen araudia, Estatutu hauek, eta Elkartearen Zuzendaritza Batzordeak behar bezala hartutako erabakiak.

ELKARTEAREN HELBURUAK

2. Atala

Elkarte honen helburuak honakoak dira:

- 1.- Egia Auzoko haur eta gazteen aisialdian modu hezgarri batean eragina izatea.
- 2.- Haur eta gazteen esparruan lankidetzaz, solidaritate, elkar - laguntza eta zerbitzu jarrerak bultzatzea.
- 3.- Beraien sentikortasuna adierazpen arlo guztietara irekitzea.
- 4.- Talde bizitza goren bultzatzea.
- 5.- Naturarekiko hurbilketa eta errespetua bultzatzea.

Aurreko idazatian azaldutako ekintzen kaltetan gabe, Elkarteak, bere helburuak betetzeko, honakook egin ahal izango ditu:

* Bere helburuak betetzeko edo horretarako baliabideak biltzeko era guztietako ekonomi ekintzak gauzatzea.

* Era guztietako ondasunak eskuratu eta eduki, eta mota guztietako ekintzak eta hitzarmenak egitea.

* Nolanahiko ekintzak burutzea, beti ere legeekin eta bere Estatutuekin bat etorritik gero.



JUSTIZIA ETA HERRI
ADMINISTRATIO SAILA
Elkarteen Erregistroa

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA
Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA
Registro de Asociaciones

ELKARTEAREN EGOITZA

3. Atala

Elkarte honen egoitza nagusia Donostian (20012), Egia auzoko Karmengo Ama 60 -behean-, egongo da.

Elkarteak beste lokal batzuk ere eduki ditzake Autonomia Erkidegoan, Batzar Orokorak hala erabakitzen badu.

LURRALDE EREMUA

4. Atala

Elkarte honen ekintzak Donostiako udalari dagokion Egia auzoan gauzatuko dira nagusiki.

IRAUPENA ETA DEMOKRAZIA - ARAUA

5. Atala

ANTXETA TTAN - TTAKUN ELKARTEA izeneko elkarteak betirako eratzen da. Elkarteak, ohiz kanpoko Batzar Orokor Berezia erabaki bidez desegin ahal izango da soilik, VI Atalburuan esaten den bezala, edo Legeetan jasotako arrazoiren batengatik.

Handwritten signature

BIGARREN ATALBURUA

ZUZENDARITZA ETA ADMINISTRATIO -SAILAK

6. Atala

Elkartearen Zuzendaritza eta administratioaren arduradunak elkarreango honako ihardute-sailak izango dira:

* Bazkideen Batzar Orokorra, ihardute - sail gorena.

* Zuzendaritza-Batzordea, zuzendaritzaren elkarreango ihardute - sail iraunkorra.

Handwritten signature

BATZAR OROKORRA

7. Atala

Bazkide guztiek osatzen duten Batzar Orokorraren bidez adieraziko dira bazkideen nahiak.



JUSTIZIA ETA HERRI
ADMINISTRAZIO SAILA
Elkarteen Erregistroa

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA
Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA
Elkarteen Erregistroa

- Batzar Orokorraren ahalmenak:**
- a) Elkartearen jarduera plan orokorra onartzea.
 - b) Urteko Kontuak eta hurrengo ekitaldiko aurrekontua onartzea.
 - c) Zuzendaritza Batzordearen kudeaketa onartzea.
 - d) Estatutuak aldatzea.
 - e) Elkartea desagitea.
 - f) Lehendakaria, idazkaria, diruzaina eta kide anitzeko aginte-organoko gainontzeko kideak, baldin badaude, izendatzea eta kargutik kentzea.
 - g) Beste elkarte batzuekin batera federazioak eta konfederazioak osatzea, edota horietatik ateratzea.
 - h) Ondasun higiezinak erabili edo besterentzeko erabakiak hartzea.
 - i) Aginte-organoko kideei ordaindu egin behar zaiela erabakitzea.
 - j) Kuota arruntak eta bereziak ezartzea. Ahalmen hau, hala ere, Batzar Orokorrak aginte – organoari eskuordetu diezaioke horretarako bereziki hartutako erabakiaren bidez.
 - k) Bazkideak behin betiko kanporatzeko erabakia hartzea.
 - l) Beste organo sozialen bati esleitu gabeko beste edozein eskumen.

8. Atala

Batzar Orokorrak ohiko bilkurak eta bilkura bereziak egingo ditu.

9. Atala

Batzar Orokorrak gutxienez urtean behin egin beharko du ohiko bilkura: urteko hirugarren hiruhilekoan izango da 7. artikuluko a) b) eta c) idatz-zatietan zehaztutako erabakiak hartze aldera.

10. Atala

Batzar Orokorra Zuzendaritza-Batzordeak erabakitzen duenean bilduko da bilkura berezian, bere ekimenez edota bazkideen % 10ek eskatu duelako. Bilkura eskatzeko arrazoiak eta helburuak azaldu beharko dira baina, nolanahi ere, honako gaiak aztertze eta erabakitzeko, bilkura berezia egingo da:

- a) Estatuak aldatzeko.
- b) Elkartea desagiteko.

11. Atala



Batzar Orokorra biltzeko deialdiak idatziz egin beharko dira, bai bilkurak egingo diren tokia, eguna, eta ordua adierazi beharko dira, bai eta gai-zerrenda ere, eztabaidatuko diren gaien aipamen zehatzarekin. Deialdia egiten denetik gutxienez hamabost egun pasatu beharko dira bilkura lehen deialdian egiteko. Hala badagokio, bigarren deialdiaren data eta ordua ere adieraz daitezke. Dena dela, deialdi batetik bestera gutxienez ordu erdiko tartea utzi beharko da.

Batzar orokorrak, arruntak nahiz bereziak, lehenengo deialdian balio osoz eratuta geratuko dira botoa emateko eskubidea duten elkartekideen herena bertaratzen bada; eta bigarren deialdian, botoa emateko eskubidea duten elkartekideen kopurua edozein dela ere.

12. Atala

Batzar Orokorraren erabakiak gehiengo soilez hartuko dira, hau da, bertaratuen nahiz ordezkatuena baiezko botoak ezezekoak baino gehiago direnean. Alabaina, bertaratuen edo ordezkatuena gehiengo kulifikatua beharko da (baiezko botoak baliozko botoen erdia baino gehiago izatea, alegia) erabaki hauek hartzeko:

- a) Elkartea desegitea.
- b) Estatutak aldatzea.
- c) Ondasunak erabili edo besterentzea.
- d) Ordezkaritza-organoko kideei ordaintzea.

13. Atala

Bazkideek, beste edozein bazkideren esku utzi dezakete Batzar Orokorrara joateko ordezkaritza. Ordezkaritza hori idatziz egin beharko da eta Batzarreko Idazkariari eman bilera baino ordu bat lehenago. Elkaratearen egoitza dagoen herrian bizi ez diren bazkideek ordezkaritza beste norbaiten esku uzteko agiria postaz bidali dezakete.

ZUZENDARITZA-BATZORDEA

14. Atala

Zuzendaritza-Batzordea da Batzar Orokorraren xedapen eta zuzentarauei jarraikiz elkaratearen interesak kudeatu eta ordezkatzeko dituen organoa. Elkartekideek baino ezingo dute osatu ordezkaritza - organoa.

Zuzendaritza Batzordea osatuko dutenak honakoak izango dira: Lehendakariak, Idazkariak, eta Diruzainak.

Gutxienez hilabeteen behin bildu beharko dute, bai eta Elkarteen ekintzak bideratzeko beharrezkoa den guztietan.



JUSTIZIA ETA HERRI
ADMINISTRATIO SAILA
Elkarteen Erregistroa

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA
Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA
Registro de Asociaciones

15. Atala

Zuzendaritza Batzordeko kideren bat bilera horietara hiru aldiz jarraian edo, tarteka sei aldiz agertzen ez bada, dagokion kargua utzi egin beharko du, hutsegite horiek ez baditu arrazoitzen.

16. Atala

Zuzendaritza Batzordeko kargudunak, Batzar Orokorrak hautatuko ditu eta bi urtetarako izango dira, Batzordeak berariaz ezeztatu ezean, eta behin eta berriro hautatu ahal izango dira.

17. Atala

Zuzendaritza - Batzordekoa izateko, honako baldintza hauek bete beharko dira:

- a) Estatutuetan esaten den eran izendatua izatea.
- b) Elkarteko bazkidea izatea.
- c) Adinez nagusi izatea edo adinez txiki izanez gero bere buru-jabe izatea, eta herritar -eskubide guztiak izatea.

18. Atala


Zuzendaritza - Batzordeko karguak ordaingabekoak izango dira. Dena den, Batzar Orokorrak dieta eta gastuak ordaintzea erabaki dezake.

19. Atala


Zuzendaritza - Batzordeko kideek honako kasu hauetan utziko dituzte karguok:

- a) Agindealdia betetakoan.
- b) Kargua uztean.
- c) Bazkide izateari utzitakoan, edo ezintasun-zioak dituenean.
- d) Batzar Orokorrak ezeztearabakiz gero, Estatutu hauetako 14. Atalean jarritakoaren arabera.
- e) Heriotzaz.

Kargua uzteko arrazoia a) puntuan jasotakoa bada, Zuzendaritza Batzordeko kideek bertan jarraituko beharko dute lehenengo Batzar Orokorra egin arte. Batzar horrek aukeratuko ditu kargudun berriak.



b), c), d) eta e) puntuetan agertzen dena baldin bada, Zuzendaritza - Batzordeak berak hutsik gelditutako kargua betetzeko norbait behin-behingo izendatuko du eta Batzar Orokorrak erabakiko du izendapena onartu ala ezeztatu. Ezeztapen bada, dagokio izendapena egingo da.



Batzorde honen osaketan gertatutako aldaketa guztien berri Elkartearen Erroldari emango zaio.

20. Atala

Honako hauek dira Zuzendaritza Batzordearen zereginak:

- Elkartearen eguneroko kudeaketaz arudratzea, Batzar Orokorren jarraibideekin bat etorriz eta haren kontrolpean.
- Elkarteak aurrera eramango dituen ekintzen egitaraua egitea.
- Gastu eta sarreraren urteko aurrekontua eta aurreko urteko kontuen egoera-orria Batzar Orokorren aurkeztea, hark onar ditzan.
- Batzar Orokorren bileretako gai-zerrendak egitea, eta ohiko nahiz ezohiko batzar orokorretako deialdiak egitea erabakitzea.
- Bazkideek egiten dituzten proposamen eta iradokizunei erantzutea eta horien inguruan hartu beharreko neurriak hartzea.
- Estatutu hauetako aginduak interpretatzea eta Estatutuetako hutsuneak betetzea, betiere elkartearen inguruan dauden legeekin bat etorriz.
- Batzar Orokorrek berariazko erabakien bidez ematen dizkion eskumenak erabiltzea, betiere ez badira haren eskumen eskusibokoak.

2022

Bakarrengo lhardute -Sailak

Lehendakaria

21. Atala

Lehendakariak Elkartearen legezko ordezkaritza beregain du. Zuzendaritza-Batzordeak eta Batzar Orokorrek hartutako erabakiak aurrera eramango ditu. Era berean aipaturiko bi sail horien buru izango da.

Zuzendaritza - Batzordeari eta Batzar Orokorren oso-osoan ez dagozkien aginpideak ere lehendakariaren esku egongo dira, batez ere honako hauek:

- Zuzendaritza -Batzordeak eta Batzar Orokorrek egiten dituzten bileren deiak egin eta bukatutzat ematea; bai batean bai bestean sortzen

2022

diren eztabaidak zuzentzea; eta botuko -berdinketa gertatuz gero, botu ebazleaz erabakitzea.



b) Elkartearen ekintzen egitasmoa Zuzendaritza - Batzordeari proposatzea. Aldi berean, Elkartearen zereginak bultzatu eta zuzentzea.

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA
Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA
Registro de Asociaciones

c) Balioz erabakitako ordainketak egiteko agintzea.

d) Sortu daitezken premiazko arazoei irtenbideak ematea, eta Zuzendaritza Batzordeari lehenengo bilkuran horien berri ematea.

Idazkaria

22. Atala

Idazkariari dagokio, zehazki, elkartean sartzeko eskabideak hartu eta bideratzea, fitxategia eta Bazkideen lerroka -liburua zaintzea eta Agiri Liburuaren zaintza eta idazketaren ardura izatea.

Era berean, Elkarteen arloan indarrean dauden legezko erabakiak bete daitezzen arduratua da, Erakundearen agiri ofizialak zainduz, Elkarte-Liburu eta agirien edukina egiaztatuz Zuzendaritza - Batzordearen aukeraketari eta elkarte egoitza aldatzeari buruzko beharrezko jakinarazpenak dagokion agintaritzarengana bideratuz.

Diruzaina

23. Atala

Diruzainak, egindako sarrera eta ordainketen berri emango du, diru sarrera eta gastuen urteroko aurrekontua eta aurreko urteko kontuaren egoeraren berri emango du. Guzti horiek Zuzendaritza - Batzordearen aurrean aurkeztu behar dira, eta honek Batzar Orokorrari onartu ditzan aurkeztu.

HIRUGARREN ATALBURUA

BAZKIDEAK, ONARPEN BIDEAK ETA MAILAK

24. Atala

Elkartekide izan nahi eta baldintza hauek betetzen dituzten guztiek izan daitezke Elkarteko bazkide:

1.- Adin nagusikoa edo adingabe emantzipatua izatea, norberaren eskubideak erabiltzeko inolako lege-baldintzaren menpe ez egotea eta ebazpen judizial irmoaren bidez eskubideen erabilera mugatuta ez edukitzea.

2.- Iharduteko gaitasuna izatea.



JUSTIZIA ETA HERRI
ADMINISTRAZIO SAILA
Elkarteen Erregistroa

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA
Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA
Registro de Asociaciones

BAZKIDEEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK

25. Atala

Bazkide orok honako eskubide hauek ditu:

1. Elkarteei buruzko Legearen edo Estatutuen kontrako erabaki eta jardunak inpugnatzea, inpugnatutako erabakiaren edukia ezagutu duten edo ezagutzeko aukera izan duten egunetik egutegiko 40 eguneko epean.

2. Elkarteko gobernu -eta ordezkaritza-organoen osaera, elkartearen kontu egoera eta elkartearen jarduerari buruzko informazioa jasotzea.

3. Elkarteko beste bazkideen nortasuna, diru-sarreraren eta gastuen egoera, eta elkartearen ekintzen garapenaren berri exozein unetan izatea, datu personalak babesteko arautegian aurreikusitako moduan.

4. Batzar Orokorretarako deiak jasotzea, batzar orokorretara joan eta hitz egin eta botua emateko eskubidea erabiltzea eta eskubide hori beste bazkideren baten esku utzi ahal izatea.

5. Elkartearen Estatutu hauen arabera, Elkarteko Zuzendaritza organoetan parte hartzea eta organo horietarako hautatzaile nahiz hautagai izatea.

6. Indarrean dauden legeetan zehaztutako bazkideen fitxategian agertzea, eta Elkartearen ikurra baldin badu behintzat erabiltzea.

7. Estatutuen eta, egonez gero, Barne Araudiaren ale bana edukitzea, eta zuzendaritza -organoei eskakizunak eta kexak aurkeztekoa.

8. Elkartearen talde ekintza sozialetan parte hartzea, eta bazkideentzako tresnak erabiltzea (elkartearen egoitza, liburutegiak, e.a.). Zuzendaritza - Batzordeak kasuan kasu erabakitako moduan.

9. Bazkideari Zigor neurriak ezarri aurretik, bazkideak idatziz adierazitakoa kontutan hartzea eta neurri horiek hartzea eragin duten arrazoiei buruzko azalpenak jasotzea. Neurri horiek hartzeko arrazoiak bazkideei dagozkien betebeharrak ez betetzean oinarritu daitezke soilik.

10. Edozein unetan baja ematea. Hala ere, hartu bai baina bete gabe dituzten konpromisoak bete beharko dituzte.



JUSTIZIA ETA HERRI
ADMINISTRATIO SAILA
Elkarteen Erregistroa

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA
Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA
Registro de Asociaciones

26. Atala

Bazkideen betebeharrak honakoak dira:

- a) Elkartearen helburuak betetzera iristeko lankidetzak ekintsua burutzea.
- b) Batzar - Orokorrak ezarritako bazkide-saria ordaintzea, gastuak ordaintzeko.
- c) Estatutu hauek eta Elkartearen zuzendaritza sailek balioz hartutako erabakiak bete eta horiei men egitea.

27. Atala

Zigor arauak

Estatutuak edo Batzar Orokorrak nahiz Zuzendaritza-Batzordeak hartutako erabakiak behin eta berriz hausteagatik Zuzendaritza-Batzordeak bazkideak zigortu ahal izango ditu.

15 egunetik hilabetera arte eskubideak kentzetik elkartetik betirako kanporatzea izan daiteke zigorra, beti ere 29. Atalaren arabera.

Horretarako, zigorgarriak izan daitezkeen jokabideak aztertzeko erabakia hartu ahal izango du lehendakariak. Azterketa horiek idazkaritzak eramango ditu aurrera, Zuzendaritza-Batzordeari neurri egokiak hartzeko proposatuko diolarik.

Zigorra ezartzeko ahalmena Zuzendaritza-Batzordeak izango du, idazkariak ez du horretan parte hartzerik izango (instrukziogilea delako) eta zigorra ezarri aurretik arazoa doakionari entzunaldia eskainiko zaio eta berak adierazitakoa kontutan hartu beharko da.

Aipatu erabakiaren aurka, beti ere arrazoiak eman beharko dituen, interesdunak Batzar Orokorrera jotzerik izango du, 25.1 Atalean oharmandako ekitearen kaltetan gabe.

BAZKIDETASUNA GALTZEA

28. Atala

Hona Bazkidetasuna galtzeko arrazoiak:

- 1.- Heriotzagatik.

2.- Bazkidea bere borondatez aldentzeagatik.

3.- Egotzia izanagatik, Zuzendaritza-Batzordeak erabakitako delata eta, honako kasu honetan:



* Estatutuetan Zuzendaritza-Batzordeak eta Batzar Orokorrak balioz hartutako erabakietan ezarritako betebeharrak nahita eta larriki haustea behin eta berriro.

29. Atala

Elkartetik kanporatzeko zigor-espedientea hasten bada, idazkariak, gertakariak egiaztatu ondoren, idatzi bat bidaliko dio interesdunari, leporatzen zazkion karguen berri emateko. Kargu horiei erantzuteko, interesdunak bere aldeko arrazoiak azaldu ahal izango ditu hamabost eguneko epean. Epe hori amaituta, edonola ere, Zuzendaritza Batzordearen lehenengo bilkurako gai-zerrendan sartuko da kasua, eta Batzordeak hartuko du erabakia. Erabakian ez du parte hartuko espedienteko intrukziogilea izan den idazkariak.

Kanporatze erabakia, beti ere arrazoiak emanda, dagokionari jakinaraziko zaio eta, era berean, hurrengo ezhoiko batzar orokorrean errekurtsioa aurkez dezakeela azalduko zaio. Hiru hilabeteren barruan batzar horretarako deirik egiten ez bada, errekurtsioa ebazteko batzarrerako deia egin beharko da. Bitartean, Zuzendaritza Batzordeak inputatuari bazkide-eskubideak etetea erabaki ahal izango du, eta Zuzendaritza Batzordeko kide bada, kargu hori utzarazi beharko dio.

Kanporatazeko erabakiaren aurka interesdunak errekurtsioa Batzar Orokorren aurrean aurkeztekotan, idazkariak espedientearen laburpena egingo du, Zuzendaritza Batzordeak eta interesdunak zigor espedientearen egindako guztiaren berri emanez, Batzar Orokorrek errekurtsioari tajuzko erantzuna eman ahal izateko.

30. Atala.

Kanporatzeko erabakia arrazoitu egin behar da beti, eta erabaki hori interesdunari jakinarazi behar zaio. Interesdunak Auzitegietara jo ahal izango du bere ustez aipatu erabakia Legearen edo Estatutuen aurkakoa bada.

31.- Atala.

Bazkideren bati kanporaketaren berri ematerakoan – berak nahi izanda edo zigorra ezarri zaiolako – bete gabe dituen betebeharrak bete ditzala eskatuko zaio.

LAUGARREN ATALBURUA

SORTZE-ONDAREA ETA AURREKONTU-ARAUAK

32. Atala

Elkarteak ez dauka sortze-ondarerik.

33. Atala

Elkarteak, bere ekintzak aurrera eramateko honako diru baliabideak izan ditzake:

- a) Batzar Orokorrak ezarritako sarrera kuotak.
- b) Batzar Orokorrak erabakitako aldizkako kuotak.
- c) Dauzkan ondasunetatik ateratzen dituen ekoizpenak eta dagozkion eskubideak. Baita legez hartu ditzaken diru-laguntza, ondare eta dohaintzak ere.
- d) Estatutuen helburuak kontuan harturik Zuzendaritza Batzordeak erabakitako eta bidezkoak diren ekintzak dakarzkiten irabaziak, beti ere Estatutu hauetan jasotako helburuen esparruan.

Elkarte eta ekonomia-ekitaldia urtekoa izango da, eta ekitaldia urte bakoitzeko abuztuaren 31ean itxiko da.

Elkarteak, jarduera ekonomikoak (zerbitzuak ematea barne) gauzatuz lortzen dituen irabaziaz bere helburuak betetzeko baino ez dira erabili beharko. Inola ere ezingo dira elkartekideen artean banatu, ez eta haien ezkontideen edota haiekin afektibitate-harremanean bizi diren pertsonen artean eta haien senideen artean ere. Ezingo zaizkie, halaber, irabazteko asmoa duten pertsona juridiko edo fisikoei doan laga.

BOSTGARREN ATALBURUA

ESTATUTUEN ALDAKETA

34. Atala

Estatutuak aldatzea propio horretarako deitutako bazkideen ezohiko batzar orokorrean erabaki behar da.



JUSTIZIA ETA HERRI
ADMINISTRATIO SAILA
Elkarleen Erregistroa

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA
Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA
Registro de Asociaciones

Handwritten signature or mark.

Handwritten signature or mark.

Estatutuen aldaketa, Zuzendaritza-Batzordearen ekimenaz edota bazkideen %25ak eskatuta Zuzendaritza-Batzordeak hala erabakiz gero egin daiteke. Dena den, bi kasuetan Zuzendaritza-Batzordeak hiru bazkidek osatutako lantalde bat izendatuko du aldaketa-egitasmoa idazteko. Egitasmo horrek Zuzendaritza-Batzordeak ezarritako arteztarauei jarraitu beharko die eta Batzorde berak jarriko duela egitasmoa amaitzeko epea.

GOBIERNO VASCO
JUSTIZIA ETA ERREGLAMENTS
ADMINISTRACIÓN PÚBLICA
Registro de Asociaciones

35. Atala

Batzarrerako deiarekin batera Estatutuen aldaketen testua bidaliko da, bazkideek egoki iruditzen zaizkien zuzenketak Idazkaritzan aurkeztu ahal izateko. Zuzenketa-proposamenen berri Batzar Orokorrari emango zaio, beti ere batzarra egin baino zortzi egun lehenago Idazkaritzan jaso badira.

Zuzenketak nahiz banaka nahiz taldeka egin daitezke. Idatziz egin beharko dira eta beste testu-aukera izan beharko du.

Zuzenketak bozkatu ostean, Batzar Orokorrak Estatutuak aldatzeko erabakia hartuko du, eta Elkartearen Erregistro Orokorrean inskribatzen denetik aurrean baino ez du eragina izango hirugarrenengan.

SEIGARREN ATALBURUA

ELKARTEA DESEGITEA ETA ELKARTE-ONDAREAREN ZERTARAKOA

36. Atala

Elkartea honako hauengatik desegingo da:

- 1.- Bazkideek hala nahi dutelako. Nahi hori horretarako bildutako batzar orokorrean azaldu beharko da.
- 2.- Estatutuetan finkatutako epea edo baldintza bete delako.
- 3.- Beste elkarteren batek xurgatu duelako edo beste elkarte batzuekin bat egin duelako.
- 4.- Legez ezarritako gutxieneko bazkide-kopururik ez duelako.
5. Epai irmo batek elkarte desegitea agintzen duelako.
- 6.- Elkartearen helbururik betetzea ezinezkoa delako.

37. Atala

Elkartea deseginez gero, erabakia hartu duen Batzar Orokorrak kitapen batzordea izendatuko du. Batzorde hori Zuzendaritzako Batzordekideek osatuko dute eta dagoen diruaz arduratuko da.

Bazkideekiko eta besterekiko Elkartearen zorrak ordaindu ondoren, geratzen den elkarte - ondarea, geratzen bada behintzat, irabazi - asmorik gabeko elkarte bati eta desegindako Elkartek zituen eginkizun berdintsuak dituen beste erakunde bati emango zais. Gipuzkoa barnean.



JUSTIZIA ETA HERRI
ADMINISTRAZIO SAILA
Elkarteen Erregistroa

AZKEN ERABAKIAK

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA
Y ADMINISTRACION PUBLICA
Registro de Asociaciones

Lehenengoa. Zuzendaritza Batzordea izango da Estatutu hauetan azaltzen diren aginduak ulertarazi eta Estatutu horien hutsuneak beteko dituen ihardute sail aginpideduna, Elkarteei buruz indarrean dauden legeko araupean beti, eta aurreko Batzar Orokorrari, onar dezan, egindako guztiaren berri emanaz.

Bigarrena. Estatutu hauek Zuzendaritza Batzordeak eta Batzar Orokorrak bakoitzak berari dagokion aginpide esparruan, balioz hartzen dituzten erabaki bidez aldatuko dira, eta Bostgarren Atalburuan ohartemandakoarekin bat etorririk.

Hirugarrena. Estatutu hauek garatzeko asmoz, Batzar Orokorrak Barne Araudi bat onartu ahal izango du. Horrek inolaz ere ez ditu Estatutuetako aginduak aldatuko.

Donostian, idatzitako testu honek "TTAN - TTAKUN" AISIALDI ELKARTEKO Batzar Orokorrak 2009ko ekainaren 19an egindako ezohiko bilkuran onartu zituen aldaketak jaso ditu, eta horrela jasota gera dadin diligentzia hau izenpetzen dut.

Idazkaria: Garazi Lopez de Samaniego Igal

Lehendakariaren Oniritzia
Virginia Murua Gonzalez

Erroldakoa Erroldatu da, Eusko Autonomia Erkidegoko Elkartearen Erroldakoa. Erroldatuaren Erregistroaren datuak ematen diren 1994ko 145. Dekretuaren eta Erroldakoa berritu daitezkeen gainontzeko arauetan zehaztutako ondoretarako.	Visados los presentes Estatutos, a los efectos determinados en el Decreto 145/1994, de 29 de julio, por el que se aprueba el Reglamento del Registro Comunal de Asociaciones del País Vasco y demás normativa concordante.
Donostia, 2009(e)ko irailaren 14an	En Donostia, a de 14 SEP 2009
ERROLDAKO ARDURADUNA AS/E/04937/1994	EL/LA ENCARGADO/A DEL REGISTRO

